

LAZKAO

ESKOLAKO AGENDA

2016-17 IKASTURTEA

21



Lazkaon geroz eta porlan gehiago dago: errepideak, espaloiak, plazak... lurzorua material artifizialez estaltzen ari gara. San Benito ikastola osatzen dugunok kezkatuta gaude gaiarekin, beraz aurtengo Eskola Agenda 21eko programan Lurzorua izan da landu dugun gaia.

Lurzorua ingurune bizia denez, azterketa bat eskatzen du eta irakasleen laguntzaz, Lazkaoko lurzoruaren egoera nolakoa den ikustera atera gara: herriko parke eta jolaslekua, Lazkaon konpost-a egiteko dauden aukerak eta, oro har, herriko lurzoruaren egoera orokorra.

Bestalde lurzorua bizitzaren oinarria dela kontuan hartuz, lurzorua zaindu beharreko ondasuna dela ikasi ahal izan dugu, eta baita nekazal lurren egoerari buruz ere.

Hona hemen egin dugunaren laburpena:



LEHEN HEZKUNTZA

LH 2. MAILA: ESKUAK LOKATZETAN

Parkearen zoria eta jolas egiturak zein materialez eginak dauden eta gaur egun zein egoeretan dauden aztertu ditugu. Parke guztien zorian aurki daiteke porlana, gehienetan kautxua. Lurra, Gurutze eta Jose Lasako parkeetan bakarrik aurkitzen da. Jolas egitura gehienak berriz, plastikoz eta egurrez eginak daude.

Parkean landararik eta animaliarik badagoen ere behatu dugu. Parke guztietan aurki daitezke belarra eta zuhaitzak. Animaliei dagokienez, gehienbat ornogabeak aurki daitezke, baita txoriak ere.

Bestalde, herriko parkeetatik gehien gustatzen zaigunaz eta nahiko genukeen parkeaz hitz egiteko tartea ere hartu dugu.

Gehien gustatzen zaizkigunak txirristak eta kolunpioak dira, besteak beste.



LH 3. MAILA: LURRAK KONPOSTA DU GUSTUKO!



3. mailako ikasleek herrian konposta egiteko modurik ba al dagoen aztertu dugu. Lazkaon gaur egun 3 aukera daudela konturatu gara:

- Etxean konposta egitea
- Auzo konposta
- Edukiontzia marroia



Honez gain, herritarrek gai honen inguruan duten iritzia jaso ahal izan dugu herrian inkesta bat eginez.

Inkestan jasotako emaitzekin ondorio hauetara iritsi gara:

1. Herritar gehienek edukiontzia marroira bideratzen dute beraien materia organikoa, gutxi batzuk dira konposta etxean egiten dutenak.
2. Gehiengoak badaki edukiontzia marroian biltzen den materia organikoarekin konposta egiten dela.
3. Batzuk ez dakite konposta zer den, hondakinen kontzeptuarekin nahasten baitute. Beste batzuk ordea, kalitate oneko ongariaren parekoa dela badakite.
4. Garrantzitsua iruditzen zaie konposta egitea.
5. Gehienek auzo-konpostan parte hartuko lukete, baina ez lukete egingo etxean konposta.

LH 6. MAILA: ZAINDU HERRIKO LURRA!

6. mailako ikasleek Lazkaoko lurzoruaren egoeraren bilakaera aztertzeke aukera izan dugu.



Lurzoruaren galeraren arrazoi bat hiri eta herrien hedapena dela ikusi dugu. Garai batean herri-gunean zeuden baserriak bota dira etxebizitzak eraikitzeke eta lehengoko bideen ordez errepide gero eta zabalagoak daude. Basoak desagertzen joan dira lurra babesik gabe geratuz, soroak zeuden lekuetan ere lantegiak, etxebizitzak eta beste azpiegitura batzuk altxa dira.



Lazkaoko lurzoruaren egoera aztertzeke, herriko puntu beltzak identifikatu eta zerrendatu ditugu. Hauek dira atera ditugun ondorioak:

1. Herrigunean porlan gehiegi dago, oso berdegune gutxi dago.
2. Eraikuntza gehiegi dago eta eraikuntzen arteko espazioetan ere dena zementua da. Honek herrian bero gehiago egitea ekartzen du. Ariztin adibidez, freskoago egoten dela diote.
3. Parkeetan ere berdegune eta zuhaitz gutxi dago eta berdeguneak gainera lorategi bezala daude, ez zapaldu eta bertan jolasteko moduan.
4. Baratzerik ez dago herrigunean.
5. Lurra ahul dago gunek batzuetan eta luiziak egoten dira: gasolinera inguruan, Lazkaomendi aldean...

BESTE HAINBAT EKINTZA

IKASTOLAN KONPOSTA EGITEN

Ikastolan konposta egitea ere posible da! Horregatik aurten konpostagailuak jartzeko gunea egokitu dugu. Hasieran ingurua antolatu behar izan dugu eta material guztia prest izan ondoren material organikoaren isurketak egiten hasi gara eta ondo ondo nahastu behar izaten dugu aireztagailuarekin.

Konpostagailuen eta konposta egitearen ardura HE-ko irakasleak, HH-ko ikasleak eta LH 3. mailako ikasleak izango dugu.



BIGARREN HEZKUNTZA

DBH 3. MAILA

DBH 3. mailako ikasleok ondorengo aztertu dugu:

- Herriko lurzorua egoera
- Udalak lurzoria babesteko hartzen dituen neurriak
- Herriko landa lurren bilakera


HERRIKO LURZORUAREN EGOERA:

Lazkaotik ibilaldi bat egin dugu, Lazkaoko puntu beltzak identifikatzeko asmoz, Hariztiko parkera eta Olaberria aldera gerturatu gara.

- Hariztiko parkea: lurzoruan zulo ugari aurkitzen dira, bide gorriaren ertzetan lokatz ugari sortzen da eta zuhaitz batzuk hilak daude.
- Olaberria bidea: luizi arriskuak daude leku batzuetan.

UDALAK LURZORUA BABESTEKO HARTZEN DITUEN NEURRIAK:

Udaletxeko teknikariarekin ere elkartu ginen, udalak Lazkaoko lurzoria nola kudeatzen duen ezagutzeko asmoz.



HERRIKO LANDA LURREN BILAKERA:

Herriko landa lurren bilakera ezagutzeko asmoz, herriko baseritar desberdinekin elkarrizketatu gara.

Orohar, baseritarrek gaur egungo egoera ez dela batere erraza aipatu dute, baseritik soilik bizi ahal izateko, kantitate oso handitan ekoiztu behar baita. Abereez gain, baratzeak, soroak eta larreak ere izaten dituzte. Animaliak erabiltzen dituzte belardiak garbitzeko. Baratzei dagokienez, tarteka lurriari deskantsua ematen dietela diote, baita errotazioa erabiltzen dutela landaketan ere. Honez gain, babarrunak eta artoa batera landatzen dituztela.

Zer egin daiteke arazo honen aurrean?

1. Pestizidak eta ongari kimikoak saihestu.
2. Ustiapen kopuru maximoa zehaztu.
3. Ustiatutako landare kopuruaren arabera, kopuru minimo bat berriro landatu.
4. Zelaien erabilera errotazionala egin, nekazaritza extensiboa saihestu.
5. Lur lan desberdinen bitartez porositatea eta uraren zirkulazioa hobetu.
6. Teknika mekanizatuak saihestu.
7. Suak kontrolatu.
8. Baratze eta zelaien erabileraren kudeaketa landu.

BESTE HAINBAT EKINTZA

DBH-ko ikasleek ekainean zehar gai honekin lotura duten zenbait ekintza egingo ditugu:

- Ikastolako patioan lorategi bertikalak jarri.
- Aralarko pista proiektuari buruzko informazio bideo bat egin (aldeko eta kontrako argudioak azalduko dituena)
- Plazaren birmoldaketa proposamen bat egin (maketa bat egingo dugu ikastolako 3D inpresora erabiliz).



GURE KONPROMISOAK

1. Parkea zaindu, zikinkeriarik ez bota eta pipak ez jan bertan.
2. Parkeetako jolas egiturak zainduko ditugu.
3. Natura ez dugu hilko.
4. Hondakinen sailkapena ondo burutuko dugu.
5. Konposta nola egiten den ikusteko konpromisoa hartuko dugu.
6. Konpostaren prozesua zein den ikasteko konpromisoa hartuko dugu.
7. Ikastolan konposta egingo dugu.
8. Herriko berdeguneak errespetatuko ditugu: zaborrak zakarrontzira botaz, landaredia zainduz...



UDALERA ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK

Egindako azterketetan oinarrituz, Udalari honako proposamen hauek aurkeztu nahi dizkiogu:

1. Herrian jolas gune berri bat egingo balute, honelakoa izatea gustatuko litzaiguke: tirolina bat izatea, txirrista handi bat izatea, armiarma bat izatea, gune akuatiko bat izatea...
2. Auzoetan konposta guneak jartzea.
3. Kontzientziazio kanpainak bultzatzea.
4. Lazkaoko lorategietan konposta erabiltzeko konpromisoa hartzea.
5. Eraikitzen ari diren auzo berrietan berdegune gehiago jartzea, horrela zelaietan jolasteko aukera izango genuke.
6. Zonalde berdeak babestu eta bertan ez egin inolako aldaketarik.
7. Noiz behinka lurrak behatu eta zaindu. Lazkaoko lurzorua egoeraren diagnostikoa egin.
8. Berdeguneak areagotu.
9. Hariztiko parkeko lurzorua diagnostikoa egin eta konponbidea jarri.



Horrela jarraitzen badugu laster gure burua bihurtuko dugu bizigabe! Beraz saiatu gaitezen Lazkaotar guztion artean lurzorua dagokion bezala mantentzen!

Hau izan da aurten egin dugunaren laburpena. Eskerrik asko guztioi zuen arretagatik.